

BERRI OROKORRAK

2018ko abenduaren 14an 13. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzue.

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza-ohiturak aldatu zituzten bikotekideekin eginiko ikerketarekin jarraituko dugu. Jarraian, aldaketa eman zuten bikotekideei baliagarriak suertatu zitzaizkien estrategiak aipatuko ditugu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

3.1.- Dosifikatu, errazetik zailera

Bi kideak euskaldun zaharrak ez ziren kasuetan –aztertutako gehienak-, euskarazko erabilpena dosifikatzen joatea askok aipatzen dute: errazena egin zaizkien egoeretatik hasi dira eta progresiboki euskaraz egiten dituzten egoerak gehituz joan dira. Zenbait momentutan, zailenak egiten zaizkienak, gaztelaniaz egitea komenigarria dela aipatzen da.

3.2.- Nekatutakoan edo “agobiatutakoan”, gaztelania ere erabili

Mila egoera suertatzen dira non espresio bat ez zaigun ateratzen, edo pentsatu beharrak nekatzen gaituen, edo nahi baino tentsio handiagoan gauden... bikote askok deskribatzen duten jarrera malgu eta konstante moduko bat, horrela laburtu daiteke: euskara gero eta gehiago erabiliko dugu, ahal dugun guztietarako, baina tartean behar dugun uneetan gaztelania erabiltzeari uko egin gabe.

3.3.- Gaitasun estrategikoa: non elikatua bilatu eta lorpenak baloratu

Bi aspektu nabarmentzen dira “gaitasun estrategiko” dei dezakegun horretan:

a) Euskaraz “non elikatua” bilatzen jakitea.

b) Lorpenak baloratzea: bikote horiek beren prozesuan lorpenei begiratzen jakin dute gehiago, zailtasunei eta trabei baino.

1.-Jostailu erabilien azoka.

Bihar, larunbata, 11:30etik 13:00etara herriko frontoian “**Jostailu erabilien azoka**” egingo da. Gaur 17:00etatik 19:00etara Sutegin jostailuak jasoko dira.

Azokan jostailuak trukatzeko, **8 urtefik beherakoek, arduradun batekin** parte hartu beharko dute.

*Azoka bukatzean **gelditu diren jostailuak EZ ITXI BEGIAK** elkarteak jasoko ditu.

2.-Neguko-jaialdiko ogitartekoak, abenduaren 21ean, ostiralean

Aurki Gabonetako ospakizuna izango dugu eta horren prestaketetan hasi gara jada. Dakizuen bezala, egun horretan **HH, LH eta DBHko** ikasleen artean banatzen diren txistorra-ogitartekoak **DBH 4. mailako ikasleek prestatzen dituzte** eta ateratako dirua ikasturte amaierako bidaia ordaintzeko erabiltzen dute.

HHn banatuko den ogitartekoaren salneurria **euro 1ekoa** izango da.

DBHn eta **LHn** banatuko den ogitartekoaren salneurria **2,10 eurokoa** izango da.

Dirua **abenduaren 17rako tutoreari ematea** eskatzen dizuegu.

Oharra: Egun horretan ikasle guztiek **baserritarrez jantzita** etorri beharko dute.

3.-Errigorako saski baten zozketa.

Ikastoletako sare sozialetan, facebook eta twitter, lagunak direnen artean, Errigorako otarra zozketatuko da.

4.-Bazkideen artean zozketatuko da otarra.

Udarregi ikastolako bazkideen artean Gabonetako otarra zozketatuko da. Irabazlea datorren ostiraleko buletinean jakinaraziko da.



5.-Agerialde jolastokiaren estaltzea. PARTE-HARTZEA.

Maiatzeko batzarrean Artezkaritzak azaldu zuen bezala, ikastolaren hobekuntza-planen barnean Agerialdeko estaltze lana dago. Estaltzea 2019ko udan egitea aurreikusi da, eta jada, bada guraso nahiz ikastolako langileez osatutako lan-talde bat lanean.

Ikastolak estaltzea egiteko familien eta erabiltzaileen iradokizunak eta ideiak jaso nahi ditu.

Parte hartzeko bideak:

- artezkaritza@udarregi.eus helbide elektronikoan.

- Idazkaritzan.

Epea: Abenduaren 14tik abenduaren 20ra.

6.-Disko bikaina Udarregin egina (2018).

Kontsumismoa gaia
Lantzen da geletan
Gehiegi erostea
Beharrik ezetan
Ikastolan badugu
Altxorra benetan
Merezi oi duena
Izan eskuetan.

Benetako altxorra
Bizitzan bakarra
Batzuetan beinepin
Izaten da hala
Eskuratu dezagun
Ahalik azkarren
Gabe gelditu arte
Ez geratu arren.

Aurten egina dugun
Tresna magikoa
Harrotasunerako
Merezitakoa
Zahartzen direnean
Nahi lukete izan
Bilobek entzuteko
Oroimen DISKOA!!!



OHARRAK ETAPAKA



HE

1.-Olentzero eta Maridomingiri ongietorria.

Abenduaren 21ean, ostirala, arratsaldeko **16:45ean Haur Eskolako patioan**, Olentzeroren eguna ospatuko dugu. Egun berezi horretan, baserritarrez jantziko gara eta haur, guraso familia eta langileok **Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria** egingo diegu.

Ondoren, 2-3 urteko haurrak Olentzero eta Mari Domingirekin egongo dira beraien gelan guraso eta hezitzaileekin.

17:30ean Haur Hezkuntzako ikasle eta guraso **guztiak patioan elkartu eta ibilbideari hasiera emango** diegu, kalejiran joanez, herriko kaleetan zehar herriko frontoiraino (18:30ak aldera).

Bertan, 2-3 urteko eta HH 5eko gurasoek antolatutako txokolate goxoa egongo da haurrentzat. Helduentzat, aldiz, guraso eta hezitzaileek eramandako patata-tortilla eta txistorrekin eginiko ogitartekoak egongo dira salgai, Urdairako sagardoa ere dastatzeko aukera izango da.



HH

1.-Neguko jaialdia.

Datorren **ostiralean**, abenduak 21, neguko jaialdia ospatuko dugu eta **haurrak baserritarrez jantzita** etorriko dira.

Hamaiketakorako DBH 4ko ikasleek prestatuko digute **ogitartekoa**. Salneurria **1€koa** izango da eta **abenduaren 17rako tutoreari ematea** eskatzen dizuegu.

Egun horretan, **12:10ean** ikastolako **patioan kantatuko** dugu.

Arratsaldean **17:30ean Haur Eskolako familiekin batera** Kalexarko patiotik abiatu eta **kalejiran ibilbidea egitera animatu nahi zaituztegu**. Ondoren, frontoian haurrentzat txokolate-jana izango da eta helduontzat, ogitartekoak eta sagardoa. ANIMATU, PRIMERAN PASATUKO DUGU!!



LH

1.-Galdutako arropak eta gauzak.

Ikasturtean zehar galdutako arropak eta gauzak Ageri-Aldeko eraikineko sarreran dauden kaxetan topa ditzakezue. Hiruhilabetea amaitzera doan honetan, kaxa horiek hustu beharrean gaude. Beraz, zuen seme-alabek zerbait galdu badute, begiratu bertan. Abenduaren 21ean, kaxetan geratzen dena birziklatzeko arropen ontzira eramango baitugu.



DBH

1.-Material-kobrantsa.

2018/19 ikasturteko **eskola-materiala** abenduaren 16an kobratuko zaizue, **hileko kuotarekin batera**.

Erreziboa zenbatekoa izango den jakin dezazuen, seme-alaben bitartez esku-orria jasoko duzue.

Inork ordainketa bi epetan egin nahiko balu, jakinarazi dezala idazkaritzan astearte baina lehen.



Gernika Ibilbidea, 11 20170 USURBIL

Tel. 943 36 12 16 / Fax 943 36 37 43

www.udarregi.eus / usurbil@ikastola.eus

